

Txinako sendabelarren osagai bioaktiboen mekanismo molekularra aztertu dute

Txinako sendabelarren osagai bioaktiboak aztertu dituzte, hainbat gaixotasun sendatzeko duten gaitasuna ulertu nahian, eta ikusi dute gure zeluletako RNA ez-kodetzailaren espresioa aldatzen dutela. Espresio hori moldatuta, inflamazioaren, infekzioen, seneszentziaren, eta zelulen migrazio eta ugalketaren aurkako eragina dutela frogatu dute. Hala, hainbat gaitz tratatzeko egokiak izan daitezkeela uste dute ikertzaileek: minbizia, zirkulazio-sistemakoak, asma, zahartzearekin lotutakoak, infekzioak...

Osagai bioaktibo asko aztertu dituzte: besteak beste, kurkumina, ginsenosidoak, berberina, oridonina, shikonina eta puerarina. [Frontiers in Pharmacology aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#), eta, egileen ustez, azterketa sakona merezi dute Txinako medikuntza tradizionalen erabiltzen diren sendabelarrek, aipatutako gaixotasunen tratamenduan ekarpena egin dezaketelakoan. ●



ARG.: Pixabay.

Orain arteko metano-kontzentrazioarik handiena neurtu dute Marteren atmosferan

NASAREN *Curiosity* ibilgailuak orain arteko metano-kontzentrazioarik handiena neurtu du, SAM tresnaren laser-espektrometroaren bitartez: 21 ppbv. *Curiosity*k sarritan detektatu du metanoa; badiurdi kontzentrazioa handitu eta txikitu egiten dela, denboraldika. Tarteka, ezohiko kontzentrazioak ere neurtu ditu, baina oraindik ez dakite zenbat irauten duten eta aldizkakoak ote diren, ala salbuespenak.



Curiosity ibilgailuaren Navcam kamerak hartutako irudia, 2019ko ekainaren 18koa. ARG.: NASA/JPL-Caltech.

Oraingoan ere, ez dute datu gehiagorik jakiteko ohiz kanpokoak ote den, ezta zerk sortua den ere. NASAK jakinarazi duenez, denbora behar du datu gehiago biltzeko eta neurtzeko guztiak ondo analizatzeko. Horrez gain, ESAREN TGO (Trace Gas Orbiter) zundaren datuak ere aztertu nahi dituzte; hain zuzen, itxaropena dute Marteren azalean eta orbitan jasotako neurketak konbinatzeak aukera emango diela jakiteko zein den metano-iturria eta zer bilakaera duen gas horrek atmosferan. ●



Albiste gehiago
webgunean